

## Axular Lizeoa, Elgoibar Ikastola, San Benito, Aita Larramendi eta AEG izan dira Kosmodisea 2009-2010 edizioko Fono Planetan puntu gehien lortu dituzten ikastetxeak

Axular Lizeoa (Donostia), Elgoibar Ikastola, San Benito (Lazkao), Aita Larramendi (Andoain) eta AEG (Donostia) ikastetxeetako taldeek lortu dituzte Kosmodisea 2009-2010 edizioko Fono Planetan puntu gehien.

Entzun Axular Lizeoko "Axularlar Galaktikoak" taldearen lana (1871 KB)

Entzun Elgoibar Ikastolako "Bostakoak" taldearen lana (2933 KB)

Entzun San Benito Ikastolako "ParisRouge" taldearen lana (1522 KB)

Entzun Manuel Larramendi Ikastolako "Ze esaten" taldearen lana (2356 KB)

Entzun Donostiako AEG zentroko "A.C.US" taldearen lana (3876 KB)

Axular Lizeoko "Axularlar Galaktikoak" taldearen lanaren elkarrizketa (36 KB)

Elgoibar Ikastolako "Bostakoak" taldearen lanaren elkarrizketa (7 KB)

San Benito Ikastolako "ParisRouge" taldearen lanaren elkarrizketa (9 KB)

Manuel Larramendi Ikastolako "Ze esaten" taldearen lanaren elkarrizketa (8 KB)

Donostiako AEG zentroko "A.C.US" taldearen lanaren elkarrizketa (40 KB)

Hain zuzen ere, Axular Lizeoko ordezkariak ([irakurri elkarrizketa](#)) (36 KB) izan dira Lehen Hezkuntzako Neo sisteman (1., 2. eta 3. mailak) hobekien sailkatu direnak, Elgoibar Ikastola ([irakurri elkarrizketa](#)) (7 KB) izan da Lehen Hezkuntzako Fizio Sisteman (4., 5. eta 6. mailak) buru jarri dena eta San Benito ikastola ([irakurri elkarrizketa](#)) (9 KB), berriz, DBHko Glos Sisteman lehen postuan kokatu dena. Bestalde, Andoaingo Manuel Larramendi Ikastolak ([irakurri elkarrizketa](#)) (8 KB), Batxilergoan sailkapen altuena lortu du eta Donostiako AEG zentroak ([irakurri elkarrizketa](#)) (40 KB), berriz, Zikloak mailan lehen postua.

"Ideia-jasaren" ostean erabaki zen bezala, Kosmodisea 2009-2010 edizioan parte hartzeko lanak hainbat gairen ingurukoak izan behar dute: auto ekologikoak, pobrezia munduan, graffiten adierazkortasuna edo liburuak/ordenagailuak dualtasuna. Orokorrean, Fono planetan landutako gaiak munduak pairatzen duen pobrezia eta miseriaren inguruko hausnarketa izan dira, nahiz eta "Zikloak" saileko AEG zentroaren lana kaleko artearen, bere adierazpen oparoaren eta sormen-mota horrek jendartean begirune handiagoa izateko aukeraren ingurukoa izan den.



"Fono" etaparen ostean, "Ikono" fasera pasako gara, proiektua planifikatu, garatu eta burutzeko irudien adierazkortasuna erabiliz.

Azkenik, "Mito" etaparen helburu nagusia bete beharko dute taldeek, proiektuaren promozioa eta hedapena bideo baten bidez burutuz. Etaparen iraupena 2010eko martxoaren 27tik maiatzaren 3ra izango da.

Kosmodisean parte hartzeko izen-emateko epea laugarren edizioaren bukaerara arte egongo da zabalik, hau da, 2010eko apirilera arte.



[Izen-ematea Kosmodisea 2009-2010](#)

[Gida azkarra Kosmodisea 2009-2010 \(2235 KB\)](#)

Kosmodisea web-orria: [www.kosmodisea.net](http://www.kosmodisea.net)